



OLABIDE IKASTOLA

IKASTOLAKO
ALDIZKARIA

2002ko
ekaina

GURE

GAUZAK

18

Olabide Ikastola
Tel.: 945150 640
Postasaila 571
01080 Vitoria-Gasteiz
e-mail: posta@olabide.com

Olabide eguna



OLABIDE ikastolako eguna

Olabide Ikastolako eguna

laz erronka bati ekin genion, alegia, bi ospakizunak egun oso batean egitea erabaki genuen, eta aurten gauzatu egin dugu asmoa. Gure ustez guraso, ikasle eta ikastolako langile gehiagok hartu zenuten parte; gehiago kontsumitu zela; hobeto antolatuta egon zela...; zuek ere iritzi bera baduzue, pozik egoteko moduko arrazoia da, zalantzarik gabe.

Hiru gauza azpimarratuko nituzke iruzkin labur honetan:

1. Ikastolaren eguna jai handia izango da, baldin eta jai horrekin denok bat egiten dugun eta esku hartzeko borondatea daukagun.
- 2.-Ekitaldi asko dago, eta askotarikoak dira. Hainbeste, ezen bi ospakizun egiteko beste dira. Beharbada, Gabonak inguruan egin liteke ospakizunen bat, Gasteizeko tokiren batean; izan ere, Gasteizek toki egokiak ditu oso horrelakoak antolatzeko. Zer iruditzen zaizue?
- 3.- Nire ustez, Batxiler 2. mailako promozioa omendu eta agurtzen dugun ekitaldi akademikoa da ospakizun horretako unerik garrantzitsuenak. Ekitaldia indartu beharko genuke, ikasleek ondo merezia dute eta. Aldizkarirako lerro hauek idazten ari naizela jakin dut hautaprobak aurkeztutako ikasle guztiek gairik gabeko emaitza, eta gainera, batez besteko emaitza Olabide Ikastolako inoiz atera duen altuena dela. Zalantzak uxatzearen, bestalde, jakin ezazue Batxiler 2. mailan matrikulatutako ikasleen %94-a aurkeztu dugula hautaprobako lehenengo deialdira

Lo que el año pasado fue una apuesta, unificar las dos conmemoraciones, cambiar las fechas, plantear una fiesta para todo el día., se ha conformado como una realidad contrastada. Tenemos la impresión de que tomasteis parte/visitasteis más padres y madres, más alumnos/as y más personal de la ikastola.; que se consumió más, que estuvo mejor organizada. Si vosotros/as tenéis la misma percepción, doble motivo para estar contentos.

Tres aspectos a remarcar en este breve comentario:

1. Este día de la Ikastola será una fiesta, si todos nos sentimos identificados y tenemos opción a disfrutar de ella. Ello significa, también, que la participación en la organización y en los trabajos se tiene que extender.
2. La cantidad y variedad de actos que se organizan dan como para impulsar dos celebraciones. Quizás deberíamos pensar en organizar algo en el entorno de Navidades en alguno de los adecuados recintos que cuenta nuestra ciudad. Se aceptan sugerencias.
3. El acto académico en el que homenajeamos y decimos adiós a la promoción de 2º de Bachiller, es a mi juicio el central del día. Deberíamos potenciarlo, porque nuestros /as alumnos/as se lo merecen. Escribiendo estas líneas para la revista, me comunican que el 100% de los alumnos/as presentados/as han aprobado la Selectividad y además con las medias más altas de la historia de Olabide Ikastola. Para despejar dudas, decir también, que el porcentaje que hemos presentado a la 1ª convocatoria, ha sido del 94% de los alumnos/as matriculados en 2º de bachiller.

ZORIONAK GUZTIO!!!

Iñaki Zubeldia



Elkartasuna eraikiz

trabajando la SOLIDARIDAD



Aurten elkartasunaren inguruan ekintza desberdinak antolatu dira, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Haur esplotazioa gaia eta Iqbal Masih (hil zuten ume pakistania, bere eskubideak defendatzeagatik) eredutik abiatuz ekintza gehienak antolatu dira.

Ikastolan bertan egin diren ekintzetatik at (tailerrak, muralak egin, bideoak ikusi, dinamikak, erakusketak...), kanpoan antolatutako beste batzuetan ere parte hartu izan dugu. Hauek, haur esplotazio mota desberdinak islatzen zituzten tailerrak izan dira: etxe-ko lanak, harrobia, baloiak josi, jostailuak eraiki...



EKINTZA HAUEK AURRERA ERAMATEN LAGUNDU GAITUZTEN BATXILERGOKO IKASLEEI GURE ESKERRIK BEROENAK, BERAIEK GABE HAU EZIN IZANGO BAIKENUKE BIDERATU.

Este año siguiendo con la tónica de los últimos años hemos querido hacer un paréntesis para trabajar la solidaridad en las diferentes etapas Infantil, Primaria y Secundaria. Las actividades organizadas han tratado el tema de la Explotación Infantil y en torno a la figura de Iqbal Masih (niño paquistaní asesinado por defender sus derechos).

Además de las diferentes actividades propuestas para trabajar en Ikastola (talleres, murales, videos, dinámicas, exposiciones...), hemos participado en otras organizadas fuera del centro. En estas, sobre todo se trabajaban a través de diferentes talleres la explotación infantil: tareas de casa, mina, coser balones, hacer juguetes...

TENEMOS QUE AGRADECER A LOS ALUMNOS DE BACHILLER SU COLABORACIÓN A LA HORA DE REALIZAR ESTAS ACTIVIDADES, YA QUE SIN SU AYUDA NO HUBIESE SIDO POSIBLE REALIZARLAS.

Gurasoentzako EUSKARA eskolak

Azkenik, plangintza burutu egin dugu eta datorren ikasturtean gurasoentzako euskara eskolak antolatuko dira. Aurten, lehenengo saiakera izanik, bakarrik maila batzuk egongo dira, gurasoen aldetik eskaera gehien jaso dutenak. Badakigu hainbat gurasok interesa izan arren, ez dutela beraiek behar duten mailako eskolak izango, baina ezinezkoa egin zaigu maila guztiak antolatzea, gutxieneko kopurua egon behar baitzuen.

Antolaketa honako hau izango da: arratsaldeetan hiru egun astean -astelehena, asteartea eta ostegunetan- 15etatik 16,30 arte 1.go eta 3. urratsak emango dira eta 20etatik 21,30 arte 1.go urratsa. Nahiz eta eskolak Olabiden izango diren matrikula irailaren 2tik 21era egin behar da Hegoalde gizatetxean. Ikastaroa 140 ordutakoa izango da, urriaren 7tik ekaina 13a arte. Eskola hauen informazioa udalak abuztuan zabaltzen duen liburuskan, non gizaritxeetako ekintza guztien informazioa agertzen den, azalduko da. Bide batez, komenigarria izango litzateke matrikula hasierako egunetan egitea, 15 lagunek izena ematean - eta Olabideko gurasoak ez direnek ere aukera dute eskola hauetara etortzeko -, taldea itxi egiten baita.

Hemendik animatu nahi zaituztet aukera duzuen guztiok eskola hauetan parte hartzea, zuen seme-alabaren euskararen jabekuntzaren prozesua hurbiletik jarraitu ahal izateko. Bide batez, zuen seme-alabari oso motibagarria suertatuko zaio zuentzat euskarak duen balorea ikustea eta berak ikasiko du ere baloratzen eta maitatzen ezagutzen ari den hizkuntza berri hau.

Como ya sabréis, estos días hemos estado ultimando la planificación de las clases de euskara para los padres y madres de Olabide. A pesar de que el interés manifestado por los aitas ha sido muy alto, el próximo curso sólo se pondrán en marcha ciertos niveles, ya que se necesita un número mínimo de asistentes a cada curso.

La organización será la siguiente: por la tarde tres días a la semana -lunes, martes y jueves- de 15 a 16,30 se impartirán 1º y 3º y de 20 a 21,30 1º curso. A pesar de que las clases se impartirán en Olabide, la matrícula hay que hacerla del 2 al 21 de septiembre en el Centro Cívico Hegoalde. El curso será de 140 horas, del 7 de octubre al 13 de junio. La información sobre estas clases aparecerá en el folleto que reparte el ayuntamiento en el mes de agosto junto con las actividades de los diferentes centros cívicos de Vitoria-Gasteiz. Sería conveniente hacer la matrícula en los primeros días, ya que al apuntarse quince personas en un grupo, éste se cierra, y hay que tener en cuenta que se pueden apuntar aitas que no son de Olabide.

Desde estas líneas os quiero animar a venir a estas clases si podéis, para así poder seguir más de cerca el proceso de adquisición del euskara de vuestro hijo-a. Así, a vuestro-a hijo-a le resultaría muy motivador ver el valor que sus aitas le dan al euskara y de esta forma aprendería él también a valorar y querer esta nueva lengua que está aprendiendo.

clases de EUSKARA para padres y madres

HAUR HEZKUNTZAN

BURUTUTAKO EKINTZAK

Prudentzio Deunaren Eguna Apirilaren 26an, ostirala, OLABIDE Ikastolan Haur Hezkuntzako haurrek urtero bezala, Prudentzio Deunaren omenez danborrada antolatu zuten. Bertan geletan umeez eginiko sukaldari jantziez eta kapelez jantzita, danborra gerrian lotuta egun berezi honen adierazle den Retreta entzuteko aukera izan genuen. Horretarako Lehen hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleak haur txikiengana hurbildu ziren modu horretan guztiak jaiaren partehartzaile bihurtu ziren.

OLABIDE Eguneko Ekintzak Ekainaren 3an, OLABIDE Ikastolaren eguna ospatu zen, bertan ekintza ugariak eta atseginak burutu ziren eta horien artean Haur Hezkuntzako umeez gauzatutakoa. Honela helburua, euskara bultzatzearen erronka duen eta laguna dugun Ahotsuren aurkezpena zen, horretarako Ahotsuren jaitziera ospatu eta HH3 eta HH4 mailako haurrek abesti ederrak eskaini zizkioten gure maskotari. Hori amaitzean Ahotsuk lekukoa HH5 eta HH6 mailako umeei eman eta KORRIKA txikia burutu zen OLABIDE Ikastolaren inguruan, honi guztiari amaiera eman zitzaion lekukoan ekarritako euskararen aldeko mezuaren irakurketaz eta Ahotsuren igoeraz.



Haur Hezkuntzako Txangoak

Ekaineko hilabetearen barruan, haur hezkuntzako umeez txango ezberdinak burutu zituzten. Honela HH3 eta HH4 mailakoek Garaio Parke Naturalera egin zuten egun erdiko irteera. Bertan beraien motxila txikitako otartekotxoak jan zituzten hamarretako edo bazkari moduan eta ibilalditxoa burutu zuten bertatik.

Bestalde HH5 mailakoek Santa Cruz de Campezoa antolatua zuten irteera eguraldiaren gorabeherengatik aldatu beharra izan genuen azken unean, horrela Errioxa aldera jo genuen Laguardia eta Labastidako herriak ikusiaz.

Azkenik HH6 mailakoek Azpeitira joan ginen, Burnibidearen Euskal Museoa ikustera eta horretarako Gasteiztik Zumarragara trenez abiatu ginen ondoren autobusa hartzeko Loiolako Basilika ikusteko, bertan bazkaldu eta museora abiatu ginen bertan Iurrenezko trenean ibilbidea egin eta zenbait xehetasun ikusteko aukera izan genuen trenaren inguruan.

Día de San Prudencio El 26 de abril como todos los años los alumn@s de Infantil celebraron tan señalado día dentro de la tradición alavesa tocando la conocida retreta ataviados con los trajes y gorros de cocineros preparados en clase, ante los alumn@s de primaria, secundaria y bachiller.

Actividades de OLABIDE Eguna Dentro de todas las actividades previstas para la celebración de este día, señalar la que en la etapa de infantil tuvo lugar. Con el objetivo de dar a conocer la mascota responsable de impulsar el euskara en OLABIDE Ikastola se celebró una pequeña KORRIKA en la que tomaron parte los alumn@s de HH5 y HH6, mientras los alumn@s de HH3 y HH4 cantaban a Ahotsu.

Excursiones en Infantil Dado que estamos a final de curso durante el mes de junio han tenido lugar las excursiones de los alumn@s de infantil, de esta manera, los alumn@s de HH3 y HH4 se desplazaron hasta el Parque Natural de Garaio. Los alumn@s de HH5 teniendo previsto acercarse hasta la localidad alavesa de Santa Cruz de Campezo tuvieron que rectificar el desplazamiento debido al mal tiempo y llegaron hasta Labastida y Laguardia. Y finalmente los alumn@s de HH6 fueron en tren hasta Zumarraga para posteriormente en autobús visitar la Basílica de Loyola y ver el Museo del Ferrocarril Vasco situado en Azpeitia.

Haur hezkuntzan burututako ekintzak

DBH eta BATXILER

Gure txikienak: DBH 1 mailakoak

DBH 1go mailako gure ikasle hauentzat, aurten gauzak beti ere hobetu nahian, proiektu berri bat aurrera eramaten aritu gara. Proiektu honen izena: ERAIKI.

Zertan datza? Sormena lantzeko teknika batzuk gelara eramanez ondoren, talde txikietan bildurik ikasle hauek produktu baten hobekuntza proposatu behar zuten. Eta azkenean produktu horren kanpaina publizitariarioa egin. Horretarako bost produkturen kontsumoari buruzko datuak jaso, ikertu eta aztertu ondoren euren proposamenak egiten zituzten..

Aztertutako produktuak hurrengo hauek izan ziren: Esnea, Gazta, Ardoa, Ura, eta Antxoa. Eta aipatu dugunez hauen ezaugarri desberdinak ondo menperatu asmatan, produktu horien produkzio bideak ezagutzera hurbildu ginen. Errioxara, ardoaren prozesua ikusten eta ikasten, Bermeora, antxoarena ezagutzeko, eta berdin beste produktuekin: esnea, ura eta gaztarekin.

Ikusi nola aritu ziren bai ikasleak bai irakasleak gaztak egiten:



Nuestros más pequeños : 1º de DBH

Este año y como innovación en el programa de enseñanza-aprendizaje hemos llevado a cabo con los alumnos de primero de Secundaria un nuevo proyecto llamado Eraiki.

Os preguntareis en qué consiste este proyecto, sobre todo aquellos que no tenéis a vuestros/as hijos/as en este curso. Sobre todo aunque no sólo eso lo hemos llevado a cabo con la finalidad de potenciar la creatividad. Para ello se les han impartido unas nociones teóricas sobre estas técnicas y a continuación las

han podido llevar a la práctica gracias a este proyecto. En dicho proyecto tenían que analizar diferentes productos y después de hacerlo proponer mejoras en ellos y crear la campaña publicitaria a fin de promocionar sus productos.

Los productos alimenticios elegidos para mejorar han sido cinco: Queso, anchoas, leche, vino y agua.

Aquí tenéis la foto en la que están con las manos en la

masa a fin de conseguir hacer un queso, y esos afortunados pudieron comerselo.

DBH 4. mailakoak



1. DBH 4. maila guztiek, Gasteizko Udalak, zehatzago izanik Udaleko Hezkuntza Sailak antolatzen duen tailer batean parte hartzeko aukera izan zuten.

Tailer hau, Irrati Albistegia deitzen da eta proiektu osoa "Gasteiztxo". Honetan ikasleek informazio desberdinak bildu ondoren, eta programak prestatu ondoren, grabaketek ekin eta benetako programak sortu zituzten. Kazetariek dirudite.

2. Bestalde, 4. mailakoek ere txango interesgarria egin zuten Biologia-Geologia gaia dela eta. Zumaiara abiatu ziren ekainaren 12an eta bertan Zumaiako kosta Ieroko Geologia eta Faunaren zenbait elementuren ezaugarriak hobeto ezagutu zituztela

3. Honetaz gain Euskararen Astea ospatzean bertan kantu txapelketa antolatu zen eta DBH ko ziklo osoak parte hartu zuen, nahiz eta talderen bat edo beste ez animatu.

Txapelketa honetan parte hartu zutenentzat eta bereziki epaileek aukeratutako bi talderik hoberenentzat saria egon zen DBH 1go E eta DBH 4. B. Hauek egun desberdinetan atera ziren irakasleak lagundurik eta Euskal Herriko zonalde batzuk hobeto ezagutzeko zein gelako kideekin egun atsegina pasatzeko aukera izan zuten. DBH 1.E koak Bertitz zein Hondarribia aldera joan ziren eta DBH 4. mailakoak aldiz Txillida Leku eta baita Hondarribia aldera.



ruta QUETZAL

Ruta Quetzal espediziorako Irune Martínez de Santos, DBH 4. E ko gure ikaslea bere lana aurkeztu eta irabazle suertatu da. Hona hemen bere esperientziaren aurkezpena :



Azkenean lortu dut ! Hiru urte pasatu ditut bidaia horrekin amets egiten, lehenengo aldiz Ruta Quetzalen berri izan nuenetik. Seguruenik, askotan ikusi dituzu telebistan 43 lurralde ezberdinetako gazteak Amerika eta Espainian zehar Miguel de La Cuadra Salcedoren eskutik antolatutako espedizioetan. 16 edo 17 urte dituzten (edo urte horretan bete behar dituzten) gazteek parte har dezakete. Egin behar den gauza bakarra, lan bat egitea da. Lana, historiko, literario, plastiko zein musikal izan daiteke eta hainbat gaien artean erabakitzeko aukera dago.

Lanak originalak eta nahiko landuak izan behar dira, aurkezten diren guztietatik, Madrilgo Unibertsitateko epaileek, hoberenak bakarrik aukeratzen dituztelako.

Urrian edo azaroan atera ohi dituzte lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta BB-VAREN edozein kutxan lor daitezke. Ni, adibidez, espeziei buruz lan historiko literario batetan egon nintzen jo ta ke bi hilabetetan zehar baina merezi izan zuen, irabazle suertatu naizelako.

Saria: Panamara eta Costa Ricara bidaia ! Hasieran ezin nuen sinetsi... baina orain badakit nire bizitzan egingo ditudan bidaietatik garrantzitsuenetariko bat hortxe bertan dagoela. Ekainaren 17an hain zuzen ere hasiko da aurtengo espedizioa. Hilabete eta erdi egongo naiz mundu osoko jendea ezagutzen, inoiz ikusi ez ditudan paisaiak miresten, Caribe eta Ozeano Bareko hondartzetan bainatzen, etnia eta tribu indigenekin bizitzen, Guadalquivir ibaia txalupan jaisten... Irrikitari nago !

Esaten dutenez, Ruta Quetzal ibilbidea oso gogorra da baina betirako irauten duen esperientzia ere. Hala ere, bidaiari sor daitezkeen zailtasunak ilusioz eta gogoz gaindi daitezke, inoiz ahaztu daitezkeen bidaia bat sortarazten. Beraz, guztiei esaten dizuet: anima zaitzete lana egiten eta posiblea da zuen ametsetako bidaia egitea. Nik ezinezkoa ikusten nuen lortu dut. Zuek zergatik ez?

Irune Martínez de Santos, alumna de 4º E en Secundaria ha conseguido formar parte de la Expedición Ruta Quetzal Después de tres años soñando poder conseguir dicho premio ha presentado un trabajo sobre las especias y ha sido elegida entre numerosos candidatos este verano seguramente será inolvidable para ella.



Ale honetan badira hamaika gauza kontatzeko.

Alde batetik pilotako barne txapelketa. Hiru larunbatetan ospatu zen, finalak Olabide egunean ospatuz. Guztira 65 pilotarik parte hartu zuten. Gure ustetan ideia guztiz arrakastatsua izan da eta hemendik animatzen zaituztegu hurrengo kurtsoan beste ekintzen artean pilota ere praktikatzera.

Ez ditugu ahaztu behar ere ekipai eta arropa berriak. Ikastolaren irudi aldaketan guk ere gure harritxoak jarri nahi izan dugu. Desfilan ikusteko aukera izan zenuten baina lasai, etxean katalogoa jasoko duzue informazio zehatzarekin.

Azkenik, Olabide Egunari buruzko txutxumutxu batzuk kontatuko dizkizuegu: Beste urtetan ez bezala, gurasoek ez zirek irakasleek ere tartetxo bat izan zuten programan, Aintzinako autoak Errioxaruntz zioazen baina geldiketa bat egin zuten Olabiden ikuskizunarekin guk goza genezan, bazkariak partaidetza errekor guztiak apurtu zituen eta azkeneko txaskarrilo gisa, salmentak primeran joan ziren 3. mailako ikasleen pozarako.

En este número hablaremos de varias cosas.

Por un lado tenemos el campeonato interno de pelota. Se celebró en tres sábados consecutivos dejando el plato fuerte, es decir, las finales para el Día de Olabide.

En total tomaron parte 65 pelotaris por lo que el éxito ha sido tremendo. Desde aquí os animamos a que entre otras actividades practiquéis este deporte tan interesante y tan nuestro.

No hay que olvidar el tema de las nuevas prendas deportivas. Nos hemos querido sumar al cambio de imagen de Olabide con unas prendas bonitas y cómodas. Los pudisteis ver en el desfile pero os enviaremos un catálogo con toda la información detallada.

Por último, ahí van algunos cotilleos del Día de Olabide: Este año tanto los padres/ madres como el profesorado de las distintas etapas tuvo un hueco en el programa, los coches antiguos iban camino a la Rioja pero hicieron un alto en la Ikastola para deleite de todos nosotros. La comida volvió a romper el record de participación y para finalizar los de 3º de la ESO tuvieron un día espléndido para vender y poder sacar unas pesetillas para el fin de curso.

bertsolariak

Euskara Komisioak bultzatua aurten, bai LHn bai DBHn bertsolariak gelara hurbildu ditugu. Etapa bietan bi bertsolari etorri ziren maiatzeko egun batzuetan zehar eta egun horietan bertsoa egiteko menperatu beharreko elementuak : puntua zer den, zortziko txikia, zortziko handia, poto, bat-batekotasuna eta bestelako elementuak argitu egin zizkieten ikasleei.

Guzti horren emaitzak ikusi ahal izan ditugu . Maiatzean Printzipal Antzokian ospatu zen Arabako Bertsolarien Finalera ikasle ugari hurbildu zen eta horretaz gain ikasleentzako finala ere antolatu izan da. Gure ikasle askok parte hartu du eta hara non finalera ere iritsi.

Aitor Urkiola, bertso txapelketaren finalera pasatu da. LH 3 – 2 taldekoa. Beraz ekainak 8, Armentian ospatuko den finala bere gaitasunak erakutsiko ditu.

Hona hemen aurkeztutakoa:

Etsamina egin dut
Gaur arratsaldean
Klasekoei kopiatu
Egin beharren

Eta erantzun nion
Zintzoa naizela
Ni ez naizela izan
Bera izan dela

Irakasleak ikusi
Bronka bota digu
Hirurok eztabaidan
Ibili gara gu

Berak ez dit sinistu
Zigortu egin nau
Eta ondoren bota
Dizkit hamar birau

EUSKAL MITOLOGIA EROA





Bigarren Hezkuntzako euskara klaseetan ikasleek euren idazle gaitasunak erakusteko aukera ezin hobea izan zuten. Hau da horren froga, hona hemen Henard Sellés Mateoren ipuina DBH 1.B:

1999ko uda zen eta Rakel urduri zegoen ikastolako txangoa noiz helduko zain. Rakel Gasteizko auzo handi batean bizi zen, aita, ama, anaia txikia eta bere katuarekin. Txango egunaren bezperan motxila prestatzen hasi zen, mendira joango zirela pentsatuz. Kantinplora, mendiko botak, bi otarteko eta, bero handia egingo zuenez, bisera bat sartu zituen motxilan. Hurrengo goizean goiz esnatu zen, gosaldu, jantzi eta autobus geltokira abiatu zen, motxila bizkarrean zuela. Bere lagunekin elkartu eta ordu erdi beranduago Gorbeia aparkalekuan zeuden. Ez zituzten arazo gehiegi izan 5 km. egiteko, baina zortzigarren kilometroa iritsi zenerako, oso nekatuta zeuden eta andereñoek motxilak zuhaitz baten azpian uzteko baimena eman zieten.

Rakel lokarriak lotzen gelditu zen eta konturatu zenerako bakarrik eta galdurik zegoen. Hara eta hona ibili zen ordu bete luzez, baina ez zuen inor aurkitu. Neka-neka eginda zegoenez motxila guztiak zeuden zuhaitzean eseri zen. Bat batean ideia zoragarria bururatu zitzaion: animaliatxo bat bilatu eta harekin arratsaldea igarotzea.

Zuhaitz azpitik altxatu, motxila hartu eta hara non azaldu zen iratxo txiki bat bere begien aurrean. Iratxoa eta neskatila oso lagunak egin ziren. Lehengo elkar agurtu zuten eta ondoren Rakelek bere abentura kontatu zion Krispini, Krispin baitzen iratxoaren izena.

Arratsaldeko zortziak aldera Rakelen lagunak heldu ziren, oso kezkatuta zeuden baina beraien laguna, Rakel, ondo zegoela ikusi zutenean beraien aurpegiak zoriontsu bihurtu ziren. Rakelek ahal izan zuen azkarren Krispin poltsikoan gorde zuen.

Ettxera heltzean bere gurasoei hitz egiten hasi zen, iratxoarena aipatu gabe, noski. Aflatzeko ordua iritsi zenean logelara igo zen Krispin nola zegoen ikustera. Iratxoa lurrean utzi bezain laster Rakelen katua agertu zen Krispin jan nahian.

Afaldu ondoren oso nekatuta zegoenez ohera joatea pentsatu zuen, gurasoei musu bana eman, pijama soinean jantzi eta ohera sartu zen. Etzanda zegoen bitartean iratxorengan pentsatzen hasi, eta hoherena mendira bueltan eramatea izango zela pentsatu zuen.

Pentsatu eta egin. Hurrengo goizean bi lagunak goiz jaiki ziren. Bizikleta hartu eta Gorbeiarantz abiatu ziren, hara heltzean oso triste jarri ziren baina Rakelek pentsatu zuen bere anaia txikiarekin ere jolas egin zezakeela.

Neskatilak, handik aurrera, bere anaia, Mikel, egunero ateratzen zuen bueltaxka bat ematera eta igandero Rakelek jolas berriak asmatzen zituen bere anaia Txikiarentzako.

MENDIAN AURKITUTAKO IRATXOA

Henard Sellés Mateo
Gasteiz, 2002ko apirilaren 17a